



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Salud Pública y
Adicciones

E410 gehigarriaren partidetan etileno oxidoaren hondakinak aurkitu direlako elikagaiak erretiratzeari buruzko informazioa

Elikagaien industriak, elikagaien segurtasuneko autokontrol-sistemen bidez, algarrobo-goma (E410 gehigarria) loteak etileno oxidoz kutsatuta daudela ikusi du, eta produktua merkatutik kentzeko neurriak hasi ditu. E410 gehigarri hori Europar Batasunean baimenduta dago, eta, funtsean, elikagaietan lodigarri eta egonkortzaile gisa erabiltzen da.

Algarrobo-goman etileno oxidoaren (E410) hondakinak egotea ustez produktu fitosanitario gisa erabiltzeari lotuta dago algarrobo-goma kutsatua egiteko erabiltzen diren laboreetan. Etileno oxidoa Europar Batasunean ez dago baimenduta produktu fitosanitarioen substantzia aktibo gisa.

Etileno oxidoa duten elikagaiak kontsumitzea ez da berehalako arriskua osasunarentzat, baina arriskua areagotu egiten da denbora luzez kontsumitzen badira. Beraz, etileno oxidoarekiko esposizioa minimizatu egin behar da, eta produktu kutsatua merkatutik erretiratu behar da.

Europar, gehigarri kutsatua erretiratzen ari dira, inolako produkturen fabrikazioan ez erabiltzeko.

Bestalde, kutsatutako gehigarritik abiatuta prestatutako elikagai guztiak, zuhertasun-printzipioa aplikatuz, kontsumitzeko ez-gai jotzen dira, azken produktuak duen gehigarri-kontzentrazioa edozein dela ere, eta produktu horietan etileno oxidoa ezarritako mugetatik gora detektatu ez den arren. Elikagai-enpresak produktu horiek merkaturatze-katetik erretiratzen ari dira.

Euskadiko agintaritza eskudunak erretiratze horren kudeaketa gainbegiratzen ari dira, Elikagaien Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziarekin (AESAN) eta Europako Batzordearekin eta honen estatu kideekin koordinatuta.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak estekak eskainiko ditu EAEn ekoiztako elikagai jakin bat alertaren eraginpean dagoen egiaztatzeko. Datuak informazio berria eskuratu ahala eguneratuko dira.

https://www.aesan.gob.es/AECOSAN/web/seguridad_alimentaria/subseccion/recuperacion_productos.htm

<https://helados.nestle.es/comprueba-tu-helado>

Informazio gehiago nahi izanez gero, [Europako Batzordearen](#) webgunea eta [AESAN](#)en webgunea kontsulta daitezke. Bertan, [preguntas frecuentes](#) izeneko atal bat dago eskuragarri.

Vitoria – Gasteiz, 2021eko uztailaren 27a